



# **Eskolako Irakurketa Plana eraikitzen: esperientzia erreal bat irakasleen prestakuntzan**

## ***Building the School Reading Plan: a real experience in teacher training***

**Haizea Galarraga Arrizabalaga**

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

[haizea.galarraga@ehu.eus](mailto:haizea.galarraga@ehu.eus)

### **Laburpena**

Irakurketa gaitasuna funtsezkoa da bizitzako arlo pertsonal, sozial zein akademikoan. Hortaz, ulermena eta irakurzaletasuna ardatz bilakatzen dira eskola testuinguruan, eta aldi berean, irakasleen ohiko kezka iturri ere izaten dira, ebaluazio probek eta eguneroko lanak halaxe adierazita. Horri erantzuteko bide bat da praktikak eraldatzera bideratutako Eskolako Irakurketa Plan eraginkor eta sendo bat eraikitzea. Erronka horretan, irakasleen etengabeko prestakuntza nahia eskola da eta artikulu honek eskola batean martxan jarritako Irakurketa Planaren irakasleentzako prestakuntza baten berri ematea du helburu. Ainguraketa teorikoa eta Gasteizko eskola batean bizitako prozesua azaltzen dira, eta baita horretatik guztiz eratorritako dekalogo bat ere, edozein eskola testuingurutan Irakurketa Plan bat diseinatzeko gako izan daitezkeen zenbait orientabide jasotzen dituen.

**Hitz gakoak:** Irakasleen prestakuntza, Irakurketa Plana, eskola, irakurketaren ulermena, irakurzaletasuna, dekalogoak







































